

Elkargokide estimatua:

Zuregana jo nahi dugu jakinarazteko gure Abokatuen Elkargoak, beste Elkargo eta Kontseilu Autonomiko batzuekin batera, egungo posta elektronikoen plataforma **aldatuko duela** datozen egunetan, eta egun elkargokideei eskaintzen diegun posta-zerbitzuaren ordez, askoz ere eraginkorragoa den eta egungoak baino prestazio hobekak dituen zerbitzu berri bat jarriko dugula.

Aldaketa hori egin arren, bere horretan eutsiko diozu elkargoko posta elektronikoen helbide-izenari. Migratzeko baimenaren web-inprimakia bete beharko duzu eta posta-kudeaketarako zure programaren konfigurazioan (adib: Outlook) aldaketa txiki batzuk besterik ez dituzu egin beharko, baina aldaketa horiek datozen egunetan egoki denean jakinaraziko dizkizugu, eta beraz, **gai honekin loturik jasotzen dituzun mezuetan arreta berezia jartzeko eskatzen dizugu. Zerbitzu berrira migratzen ez diren posta-kontuak itxi egingo dira, migrazio-proiektua amaitzen denean.**

Abokatutza Posta izeneko plataforma berriak Microsoft Office 365 teknologia erabiliko du, eta abantaila ugari baliatzeko aukera emango dizu:

PRIBATUTASUNA ETA SEGURTASUNA ZURE KOMUNIKAZIOETAN

- **Segurtasun juridikoa:** DBLO betetzea bermatzen dizu.
- **Segurtasun teknikoa:** Segurtasun Eskema Nazionalaren ziurtagiria du. Spamaren eta phisingaren aurkako sistemetan azken teknologiak darabiltza.

GAITASUN HANDIKO KONTU PROFESIONALA

- 50 Gb-eko posta-ahalmena.
- 1 TB-ko biltegitratze-ahalmena hodeian (OneDrive).
- Agenden, kontaktuen, eginkizunen kudeaketa profesionala.
- Erabiltzailearentzako euskarri teknikoa.
- Interfaze intuitiboa eta erabilerraza.

POSTA BAT BAINO GEHIAGO, ZURE LANTOKIA HODEIAN

Zure ordenagailutik, mugikorretik eta tabletetik:

- Online lan egizu Microsoft Officeko zure agiriekin (Word, Excel, PowerPoint), instalatuta eduki gabe.
- Modu seguruan gorde itzazu hodeian OneDrive erabiliz. Partekatu itzazu fitxategiak bezeroekin, lantokiko beste kide batzuekin, Elkargoarekin....
- Eta askoz gehiago (berehalako mezularitza, bideo-konferentziak, bilerak Interneten...).

SINESGARRITASUNA ETA KONFIANTZA ESKAINI ZURE BEZEROEI

- Erabil ezazu email helbide bat zure Abokatuen Elkargoko domeinuarekin.

Posta elektronikoko zerbitzu berri hau zure jarduera profesionala eraginkorragoa eta arinagoa bihurtuko duen erreminta izatea espero dugu.

Adeitasunez,

Dekanoa,



Lurdes Maiztegui González